

#JesusGureanEreBidelagun

0 6 E snatu

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

Mendekoste Jesusen Espiritua dugu lagun

Familia Ikuspuntutik

Espiritu Santua, giza elkarte den familian dago bere lokarriak sendotuz: elkarrengan konfiantza izaten lagunduz, elkar begirunez hartzeko bidea erakutsiz, tirabirak arintzen, gatazkak elkarren onerako arintzen eta elkarri barkatzen irakatsiz.

Kristau izatea, gizabanako bakoitzarengan, Elizan eta munduan jarduten duen Espirituaren gidaritza eta sendotasuna onartzea da. Espiritua dugu gidari eta adore-emaile, Jesusen atzetik jarrai dezagun eta Jainko Aitarengan konfiantza osoa jarri. Honetan datza Espirituaren eragina: sua jartzean gauzak, hartu-emanak hotzak direnean eta argi egitean, iluntasunak biltzen gaituenean.

Pandemia eta konfinamendu aldian ere, era batera edo bestera denoi sufritzea egokitu zaigun garai zail honetan, Jesusen Espirituak jardunean, guri lagun eginez, jarraitzen duela senti dezakegu. Errealitateari Jesusen begiez begiratzen diogunok zera sumatzen dugu:

- Jesusen Espiritua izan da osasun arloko hainbeste profesionali adore eta indar eman diona, zailtasun guztien gaineratik, dena emateko uneoro.
- Jesusen Espiritua izan da bakarrik dagoen hainbeste pertsonari, nagusiei, gaixoei,... lagun egin diona, bere kontsolamendua emanaz.
- Jesusen Espiritua izan da aldarte ona berreskuratzen lagundu diguna, muga-mugan, indarge aurkitu izan garen une hauetan.
- Jesusen Espiritua izan da... sumatzen duzu bere presentziaren zeinuren bat zeuregan, zeure familian, zeure inguruan, gizartean?

Hasierako ikasle haiei gertatu zitzaien bezala, gaur ere Jainkoaren Espirituak adore ematen digula, eutsi eta bidali egiten gaituela sinetsita ospatzen dugu Mendekoste..

**Irakurtzeko,
klikatu irudiaren gainean**



**Ikusteko,
klikatu irudiaren gainean**



**Zatoz, Espiritu Santua,
indarberritu gure bihotzak,
lagundu Jesus en jarraitzaile izaten!
Zatoz, Espiritu Santua!**

**Zeuk ematen diguzu Jesusen bizia,
zeuk bultzatzen gaituzu Hari jarraitzera,
zeuk gogoratzen dizkiguzu bere hitzak,
zeuk argitzen gaituz eta indarra ematen diguzu,
zeu zaude geure barruan
etafedez, itxaropenez eta maitasunez betetzen gaituz.**

**Espiritu Santua, zugar sinesten dugu.
Aintza Aitari eta Semeari
eta Espiritu Santuari. Amen.**

Mendekosten, Jesus Berpiztua bere Espirituaren bidez, bere indarra, adorea, maitasuna, berotasuna,... emanaz, jarraitzaile guztioi, Eleiza osoari lagun eginez, betirako geure artean dela ospatzen dugu.

Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiak

Bataioan Jesusen Espiritua hartu genuen eta, horri esker, bere familiako, elkarteko, Elizako kide bihurtu ginen. Espirituak lagun egiten digu eguneroko bizitzan; haizearen indarra eta suaren berotasuna ematen dizkigu Jesusen atzetik jarraitzeko.



Zer gertatzen den talde lana egiten dugunean ikusteko, klikatu irudiaren gainean

1. Proposamena

Denok beharrezkoak garela eta denok bat eginik guztiona den helbururako bidean aurrera egin dezakegula sentiaraziko digun jokoren bat egin dezakegu:

“Korroan jolastuko dugu”. Ezinezkoa da denok ez bagaude.

- Bikoteak ososatuko ditugu. Zapi batekin, pertsona baten ezkerreko zangoa beste pertsona baten eskuineko zangoarekin lotulo dugu eta ibiltzen saiatuko dira. Hori lortzeko, talde lana egin beharko dute.

2. Proposamena

Zuon seme eta alaben bataio-eguna gogoratuko dugu... Egun hartatik, zer duzue gordeta zuon bihotzean? Argazkiak ikusiko ditugu haurrekin eta egun hori nolakoa izan zen kontatuko diegu.

Bataiarria marraztu eta barruan gure familiakoen izenak idatziko ditugu. Elizaren silueta marraztu, lehen egin dugun bataiarria bertan itsatsi eta ezagutzen ditugun eta Jesusen senide ere badiren eta gure elkarte, gure parrokia, gure pastoral barrutia... Jesusen Eliza osatzen duten beste batzuen izenak idatziko ditugu.

Bataio-egunean, kandelak ematen zaie gurasoei. Jesus Berpiztuaren sinbolo den Pazko-zuzitik argia hartzen da. Orain, kandelak marraztuko ditugu, bataiarriaren ondoan ipintzeko.



Jainkoagaz izateko, klikatu irudiaren gainean




Hiru eta sei urte bitarteko haurrak dituzten familiak

Aurreko proposamenez gainera, beste jolas edo jarduera batzuk egin ditzakegu, hurrei beraiei protagonismo gehiago emanez.

1. proposamena

Helduek familiaren argazkia tamaina handian inprimatu edo marraztuko dute. Hainbat zatitan ebakiko dute, puzzlearen piezak balira bezala, gero denen artean osatzeko. Familiako kide bakoitzari bi pieza eman. Denok parte hartu eta duguna batera jartzen ez badugu, gauzak ez dira ateratzen...



2. Proposamena

Zuon seme eta alaben bataio-eguna gogoratuko dugu... Egun hartatik, zer duzue gordeta zuon bihotzean? Argazkiak ikusiko ditugu hurrekin eta egun hori nolakoa izan zen kontatuko diegu.

Ondo legoke hurrei familiako hainbat kideren -aita, ama,lehengusu-lehengusinak, osaba-izebak, amonak...- bataio-eguneko argazkiak erakustea. Denok osatzen dugu familia, Jesusen Eliza. Jesusen familia handiko kide diren auzoko, ikastetxeko, herriko... ezagunen izenak gogoratuko ditugu hurrekin.



Jesusen "lege bakarra" zertan datza jakiteko,
klikatu irudiaren gainean

Zatar-paperean, edo kartulinaran, elizaren silulelta marraztuko dugu eta barruan bataioetako argazkiak itsatsiko ditugu (edo marraztu)... eta azpian bakoitzaren izena jarriko dugu. Jesusen familia gara eta ...(e)ko elkarteak osatzen dugu (bakoitzak berea esango du).

Dagokigun parrokiaren edota Pastoral barrutiaren izena jar dezakegu oinarri bezala.

3. Proposamena

Jesusen Espiritua zuregan dago, niregan dago... "suaren antzekoa da eta berotasuna ematen du; haizearen antzekoa da eta adore ematen du", dio gero ikasiko dugun J. Elezkanoren abestia.

Paperezko errota egingo dugu.



Paperezko errota nola egiten den jakiteko, klikatu irudiaren gainean



Airea ez da ikusten..., baina nabariak dira eraginak.

Airearen eragina ikusteko, klikatu irudiaren gainean

Antzeko zerbait gertatzen zaigu suarekin. Hainbat kandela piztuko dugu ontzi baten barruan... berotasuna ez da ikusten, baina bai sentitzen.



Suaren eragina ikusteko, klikatu irudiaren gainean

Horrelakoa da Jainkoaren Espiritua... "ikusten" ez dugun arren, sumatu egiten dugu. Berak ematen digu haizearen indarra eta suaren berotasuna. Laun egiten digu, beti dago gurekin.

Jainkoagaz izateko



Juanjoren abestia ikasteko klikatu irudiaren gainean



▪ Zatoz, Espiritu Santua,
laguniezaguzu Jesusen atzetik joaten!
Zatoz, Espiritu Santua!
Haren hitzak gogoratzen dizkiguzu,
argia eta indarra ematen dizkiguzu,
gure barruan zaude eta fedez,
itxaropenez eta maitasunez betetzen gaituzu.
Aintza Aitari, eta Semeari eta Espiritu Santuari. Amen

"Irakatsiezadazu otoitz egiten". Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gazteizko eliz Barrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzak. 27 orrialdea